

OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO

2023KO MARTXOAREN 27A / 27 DE MARZO DE 2023

BERTARATUAK / ASISTENTES

**IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO
GENERAL**

D. Juan Agustín Villafranca Bellido
jauna

ALKATEA / ALCALDE

D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).

ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).
Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).
D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).
D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).
Dña. M^a Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).
D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).
Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).
D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).
Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).
D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).
Dña. M^a Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).

Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:

La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:

Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2023ko otsailaren 27an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua. Maria Elena Ibañez Anuncibay andreak bere ezin etorria justifikatu du.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 27 de marzo de 2023, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta honako hau aztertu da:

El Sr. **Alcalde** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

GAI-ZERRENDA

1. 2023ko otsailaren 27ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.

2023ko otsailaren 27ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa bozkatu ondoren, onartu egin da eta aktatzat hartu.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 27 de febrero de 2023.

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 27 de febrero de 2023, queda aprobada, siendo elevada a acta.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5),
Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2. Alkatetzaren ebazpenen kontu- ematea.

Azaroaren 28ko, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **Alkatea jaunak** azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du.

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5),
Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales el **Sr. Alcalde** da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

3. Udal langileen Enpresa Batzordeak lanpostuen balorazioari buruz aurkeztu duen mozioa.

3. Moción presentada por el Comité de Trabajadoras y Trabajadores municipales en relación a la valoración de puestos de trabajo.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (5), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Eibarko Udal Langileen Batzordeak honako mozio hau aurkezten dio Udal Osoko bilkurari:

JUSTIFIKAZIOA

Enpresa-Batzordea osatzen duten sindikatu guztiek zeharo zaharkitua dagoen Udaleko lanpostuen balorazioa — 1989. urtekoa da— eguneratzeko eskaera behin eta berriz egin ondoren, lanpostuak baloratzeko prozesuari ekin zitzaion 2017. urtean. Prozesu hura ez zen amaitu, kontratua deuseztatzea erabaki zelako enpresa adjudikaziodunarekin.

2021. urtean lehiaketa publikora atera zen eta beste enpresa bati adjudikatu zitzaion balorazio-prozesu berri bat; enpresa horrek 2022ko otsailean ekin zion lanari, prozesuaren inguruko memoria teknikoa eta kronograma aurkeztuz. Handik egun gutxira, udal langileei balorazio-galdetegiak betetzeko eskatu zitzaion, alegia, honako hau: egunero, aldizka eta noizean behin langile bakoitzak betetzen dituen zereginak, nola egiten dituen, zertarako, zein baliabiderek eta nolako maiztasunez; eta, hori guztia, ahalik eta lasterren bete behar zela adierazten zen.

El Comité del Ayuntamiento de Eibar presenta la siguiente Moción al Pleno Municipal

JUSTIFICACIÓN

En el año 2017 y tras innumerables solicitudes por parte de todos los sindicatos que componen el Comité para actualizar la valoración de los puestos de trabajo del Ayuntamiento que está obsoleta, al ser del año 1989 la que está en vigor, se da inicio a un proceso de valoración de puestos. Proceso que no llega a finalizar al decidirse la rescisión con la empresa adjudicataria.

En el año 2021 sale a concurso público y se adjudica un nuevo proceso de valoración a una empresa distinta; empresa que comienza el trabajo en febrero de 2022, presentando una memoria técnica del proceso y un cronograma. Pocos días después se solicita a la plantilla municipal que proceda a rellenar los cuestionarios de valoración en los que había que indicar las tareas que realiza diariamente, periódicamente y ocasionalmente, cómo las hace, para qué, con qué medios y con qué frecuencia, todo ello indicando que debería ser rellenado a la mayor brevedad posible.

Apirilean kontraste-elkarrizketak egin ziren lanpostu jakin batzuetan ari ziren pertsonekin. Ondoren, 2022ko ekainaren amaieran, galdera-sortetan eta kontraste-elkarrizketetan langileek adierazitakoari buruzko behin-behineko eginkizunak biltzen dituen fitxa jaso zuten. Alegazioak egin zitzaizkien.

Une horretatik aurrera, ez plantillak ez sindikatuek ez dugu ofizialki izan lehen alegazio horiek nola geratu ziren jakiteko aukerarik, ez baitugu lanpostuen deskribapen-fitxa jaso.

Ez dira bete enpresak aurkeztutako kronograman aurreikusitako epeak.

Esan digute balorazioaren fitxak dagoeneko Udalean daudela, gutxienez 2022ko azarotik, aurreragotik ez bada, baina ez dira banatu, nahiz eta sindikatuek Pertsonaleko Batzordeetan eta beste bitarteko batzuen bidez sarri askotan lanpostuen deskribapen-fitxak banatzeko eskatu.

Hori dela eta, udal langileok, 2023ko martxoaren 16an egindako batzarrean, erabaki genuen Langileen Batzordeari honako mozio hau aurkez dezan eskatzea:

En abril se procede a hacer entrevistas de contraste con personas que ocupan unos determinados puestos. Posteriormente, a finales de junio de 2022, las trabajadoras y trabajadores reciben la ficha que recoge las funciones provisionales sobre lo indicado en los cuestionarios y en las entrevistas de contraste, pudiendo hacer alegaciones.

Desde ese momento ni la plantilla ni los sindicatos tenemos conocimiento oficial de cómo quedan esas primeras alegaciones, porque no hemos recibido la ficha de descripción de los puestos.

Se han incumplido los plazos previstos en el cronograma presentado por la empresa.

Se nos ha indicado que las fichas de la valoración están ya en el Ayuntamiento desde por lo menos noviembre, sino antes, del 2022 pero no se han distribuido, pese a haber solicitado los sindicatos en las comisiones de personal y por otros medios reiteradamente que se proceda al reparto de las fichas de descripción de los puestos.

Por ello las y los trabajadores municipales reunidos en asamblea el 16 de marzo de 2023 acuerdan proponer al Comité presentar la siguiente

MOZIOA

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Lehenengoa. Eibarko Udalak hitz ematen du, gehienez ere, 7 eguneko epean banatuko dituela lanpostu bakoitzak dituen eginkizunen deskribapena eta emandako puntuazioak biltzen dituzten fitxak.

Bigarrena. Eibarko Udalak, era berean, adierazten du asmo irmoa duela sindikatuetakoa ordezkariekin fede oneko negoziazio-prozesua ahalik eta lasterren hasteko.

Hirugarrena. Eibarko Udalak berretsi egiten du konpromiso hau: lanpostuen banakako balorazio-prozesuaren emaitzak ordainsari-gehikuntza badakar indarrean dagoen zenbatekoarekiko —erreferentziatzat, indarrean dagoen azken Lanpostuen Zerrenda hartuta—, balorazio-prozesuaren hasiera hartuko dela erreferentziatzat datatzat ordainsarien ondorioetarako.

Laugarrena. Eibarko Udalak hitz ematen du ezen, negoziazio-prozesuaren ondorioz lanposturen batek indarrean dagoen ordainsaria —Udalean onartutako azken Lanpostuen Zerrendaren arabera— baino txikiagoa jaso behar badu, lanpostu

MOCIÓN

El Pleno Municipal acuerda:

Primero. El Ayuntamiento de Eibar se compromete a que en un plazo no superior a 7 días se proceda a repartir las fichas que contienen la descripción de funciones de cada puesto de trabajo y las puntuaciones atribuidas.

Segundo. Así mismo muestra su firme intención de proceder a iniciar un proceso de negociación de buena fe con la representación sindical a la mayor brevedad posible.

Tercero. Se ratifica el compromiso de que en caso de que el resultado del proceso de valoración individual de puestos suponga un incremento retributivo respecto al importe que esté vigente tomando como referencia la última Relación de Puestos de Trabajo en vigor, se tendrá como fecha referente a efectos retributivos el inicio del proceso de valoración.

Cuarto. El Pleno se compromete a que en caso de que como resultado del proceso de negociación algún puesto de trabajo deba tener una retribución inferior a la que esté en vigor según la última Relación de Puestos de Trabajo

hori betetzen ari den pertsonak edo pertsonak ez dutela inolako murrizketarik izango beren hartzekoetan.

4. Galderak eta erreguak.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortziak eta hogeitaz izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaitutzat eman du Osoko Bilkura; eta nik, Idazkari Nagusi naizen honek, honen guztiaren fedea ematen dut.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE

Jon Iraola Iriondo

aprobada en el Ayuntamiento, la persona o personas que estén ocupando ese puesto de trabajo no sufrirán merma económica alguna en sus haberes.

4. Ruegos y Preguntas.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas veinte minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido